

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko erabakia.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikulua xedatzen duenaren arabera, kontratazio-mahaiaren berezko zeregina da kontratazio-organoari laguntzea kontratuak esleitzen, prozedura irekietan, ireki laburtuetan, murriztuetan, lehia-elkarriketaren bidezkoetan, berrikuntzarako elkarrekin eta lege horretako 168. artikuluan aipatzen diren publikitadedun prozedura negoziatuetan. Orobat xedatzen du hauek osatuko dutela mahaia: lehendakariak, kideak (erregelamendu bidez zehaztuko da zenbat izango diren) eta idazkari batek, eta kontratazio-organoak izendatuko dituela mahaikideak.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen 57/2003 Legean emandako idazkuntzan— Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dizkio kontratazio-eskumenak. Beraz, hori da kontratazio-organoa, artikulua beraren 2. paragrafoaren arabera eskumen horiek eskuordetzeko aukera gorabehera.

Biztanle kopuru handia duten udalerrietan Tokiko Gobernu Batzarrak ditu kontratazioaren alorreko eskumenak, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena edozein izanik ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak —“Toki-erakundeetarako kontratazio arau bereziak”— 4. paragrafoan xedatutakoaren ildotik. 7. paragrafoaren arabera, berriz, kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularrak, eta kontu-hartzailea, baita kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio mahaiaren hautetsiak ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan. Mahaiaren idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari,

Erabaki-proposamena

Lehena. Hauek izendatzea Kontratazio-mahaiko kide:

Lehendakaria:

— César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV).

Hura kanpoan edo gaixo baldin bada, Borja Rodríguez Ramajo jaunak (PSE-EE) ordeztuko du.

Idazkaria:

— Iñaki Basauri Bengoa jauna; hura ez badago, Cristina Martínez de Lagos Beitia andreak ordeztuko du.

Kideak:

— Rocío Vitero Pérez andrea (EH Bildu).

Ordezkoak:

- Ainhoa Domaica Goñi andrea (PP).
- Óscar Fernández Martín jauna (Elkarrekin).
- Loreto Abaigar Echevoyen andrea, Aholkularitza Juridikoko zuzendaria; hura ez badago, Jon Kepa Zarrabe García jaunak ordeztuko du.
- Alfredo Barrio Gil jauna, kontu-hartzaile nagusia; hura ez badago, Elvira Arcos Alberdi andreak ordeztuko du.
- Cristina Martínez de Lagos Beitia andrea, Kontratazio Zerbitzuko burua; hura ez badago, Marilo Movilla Rivas andreak ordeztuko du.

Bigarrena. Erabaki hau hartu den egunean bertan jarriko da indarrean, ALHAOn eta Udalaren webgunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 20an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE